

The background is a solid blue color. On the left side, there are several thin, white, overlapping circular lines that create a sense of motion or a spiral. On the right side, there is a white triangular shape pointing towards the top right corner. The text is centered in the middle of the page.

# Kapitulua 1.

## Hitzaurrea, helburuak eta metodologia

# 1.1. Aurkezpena

Bakardadea azken urteotan geroz eta garrantzitsuago bihurtu den fenomeno da; berez, mendebaldeko gizarteek, oro har, eta politika publikoek, zehazki, gaur egun dituzten erronka nagusietako bat da. Gure inguru hurbilenean, fenomeno hau aztertzeko geroz eta azterlan gehiago egiten diren arren, oraindik ere esan daiteke, gaur egun, bakardadea –eta, zehatzago esanda, bakardade sentimendua– sakonki arakatu gabeko aztergaia dela. Aldi berean, nazioarteko esparruan, bakardadeak ikerketa ugari inspiratu ditu, bakardadea edo bakardade motak kontzeptualizatzeko, lotura gehien dituzten faktoreak edo aldagaiak identifikatzeko eta bakardadea prebenitzeko, arintzeko edo jorrazteko esku hartze eraginkorrenak zehazteko helburuarekin. Hain da nabarmena bakardadeen eta hauen gizarte eta osasun inpaktuaren garrantzi gorakorra, non Erresuma Batua edo Japoniaren moduko herrialdeetan Bakardadearen Ministerioak sortu baitiren fenomeno honi aurre egiteko. Hauek izan dira, hain zuzen ere, gai hori jorrazteko eginkizun espezifikoak duten organismoak sortu dituzten munduko lehen bi herrialdeak.

Testuinguru horretan, esan daiteke, gure ingurunean, ez dela eratu eta finkatu bakardadeen eta bakardadeak prebenitu eta jorrazteko politika publikoen inguruko praktika eta ezaguera komunitate bat, diziplinartekoa, lanbide artekoa eta sektore artekoa dena. Bakardadeak politika publikoetatik modu espezifikoan jorrazteko moduko fenomenoak direla kontuan hartuta, estrategia hau jaio da Gipuzkoan bakardadeekin lotutako egoerak jorrazteko esparru bat

garatzeko helburuarekin, hartara herritarrek gaitasun eta baliabide gehiago izan ditzaten eskura honelako egoerei aurre egin ahal izateko. Beraz, estrategia honen objektua osatzen dute bakardade mota guztiek edo bakardade egoera guztiek, izan ere, bakardade esperientziak ugariak eta anitzak dira maiztasunaren, larritasunaren eta iraupenaren arabera eta, batez ere, pertsona bakoitzaren pertzepzio subjektiboaren arabera. Bakardadeak definitzen dituzten banako adina bakardade daude eta, horregatik, hobe da bakardadeez hitz egitea, bakardadeaz hitz egin beharrean.

Helburu horrekin eraiki da Hariak, bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako Estrategia, zenbait eragileren arteko lankidetzaren lanaren emaitza dena eta Adinberri Fundazioak koordinatzen duena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuarekin batera. Adinberri Fundazioa, Etorbizuna Eraikiz esparru barruan eratutako Erreferentziako Zentroetako bat, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurraldeko gizarteak eskura duten tresna bat da longebitatearen (eta lotutako fenomenoek) iraultzaren azterketa eta jorratze berritzaileari eta horiek dakartzaten erronka eta aukerari ekarpen estrategikoak egiteko. Gauzak horrela, foru erakundeak uste du bakardadeak politika publikoko estrategia bat merezi duten fenomenoak direla.

Estrategia horren esparrua Etorbizuna Eraikiz espazioa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duena eta honako helburua duena: "guztiok elkarrekin Gipuzkoako lurraldeak etorkizunean

izango dituen erronkak hautematea, horiei aurre egiteko modua diseinatzea, ingurune errealean ezar litezkeen erantzunak esperimentatzea, askotariko eragileekin lankidetzan, eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan txertatzea”.

Etorkizuna Eraikiz esparrutik eta ikuspuntu hau abiapuntu hartuta, 2020>2030 Gipuzkoako Agenda garatzen ari da, datozen 10 urteetarako Lurraldeko gizarte politiken trantsiziorako esparru eta ibilbide orri bat eskaintzeko helburuarekin eta gizarte eragile guztien eginkizuna indartzeko ere. Agenda honen alderdirik berritzaileena Trantsizioko Gizarte Politikak dira<sup>1</sup>. Bakardadeei aurre egiteko Hariak Estrategia, berez, 10 jarduketa ardatz dituen 2020>2030 Agenda horren barne dago eta, zehazki, trantsizioen agendaren garapenaren inguruko ardatz barruko (9. ardatza) jarduketa bat da, “gizarte politiken multzo barruan berrikuntza eta esperimentazioa sustatzeko, zaintzen tokiko ekosistemak bultzatzeko edo arreta eredu berriak bultzatzeko jarduketak garatzea” helburu duena.

Hariak erakunde arteko estrategia bat da eta haren prestakuntzan parte hartu dute Lurraldeko gizarte eragile, enpresa eragile eta erakunde ugariak. Ildo horretan, Lurraldeko erakunde publiko, gizarte-erakunde eta enpresa eragile askoren aliantza eta atxikimendua bilatzen du Estrategiak, Adinberri Fundazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren zuzendaritza

eta lidergoaren baitan.

Horretarako, aurrerago azalduko den moduan, Estrategiak bi mailatan egituratzen ditu bere edukiak. Alde batetik, Esparru Estrategiko bat, dokumentu honetan jasoa, epe ertain eta luzerako bokazioarekin eta bost urteko indarraldiarekin (2022-2026). Bestalde, jarduketa-plan zehatzak, printzipioz, bi urtekoak izango direnak. Esparru Estrategikoak estrategiari atxikita dauden eta honen inplementazioan parte hartzen duten erakundeek ekimenak bideratu nahi ditu eta, bestalde, jarduketa-planetan atxikitako erakundeek plan bakoitzaren aldi bere gain hartzen dituzten konpromisoak, proiektu eragileak eta bestelako ekintzak jasotzen dira.

<sup>1</sup> 2020>2030 Gipuzkoako Agendan jasotzen den moduan, trantsizioko gizarte politikak dira zerbitzuei lehentasuna ematen dien arreta eta zaintza eredu batetik pertsonen lehentasuna ematen dien arreta eta zaintza eredu baterako trantsizioa sustatzen duten politikak, programak eta jarduketak.

## 1.2. Metodologia: Hariak eraikitzeko partaidetza prozesua

Ikuspuntu metodologikotik, Hariak Estrategiaren ezaugarri nagusia da hura definitu eta eraikitzeko gauzatu den partaidetzako eta lankidetzako prozesua. Estrategia prestatzeko prozesuak -ibilbide

orriak- bi urte iraun ditu gutxi gorabehera, 2020ko otsailetik 2022ko maiatzera, ilustrazio honetan ikus daitekeen moduan:

### Hariak Estrategia eraikitzeko ibilbide orria



Aurreko puntuan adierazitako moduan, estrategia honen prestaketa Adinberri Fundazioak koordinatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuarekin batera. Horretarako, prozesuaren hasieratik, talde eragile bat sortu zen, adituek eta erakunde anitzetako ordezkariak osatua, proiektua dinamizatzeaz eta bultzatzeaz ardura zedin.

Esparru horretan, 2020ko ekainean, galdetegi bat bidali zitzaion Gipuzkoako udalei, arlo honetan zituzten beharrak eta jarduketak ezagutzeko helburuarekin, eta elkarrizketa prozesu bat abiarazi zen Eusko Jaurlaritzarekin, Estrategiaren oinarrien lehen dokumentu bat prestatzeko ekarpenak jasotzeko. Ondoren, 2020ko abenduan, talde eragile zabaldu bat sortu zen, eragile berriekin, ezagutza eta planteamenduak uztartzeko eta oinarri partekatuak ezartzeko. Talde hura osatu zen bakardadeen fenomenoarekin kezkatuta zeuden Gipuzkoako funtsezko pertsona eta erakundeekin eta, aldi berean, Estrategiaren oinarrien dokumentua eraikiz joan zen.

Talde Eragile Zabaldu hau osatu dute jarraian adierazitako pertsonak, hemen adierazten diren erakunde eta entitateetakoak:

- Ainhoa Becerra. Adinberri Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Aitor Orobengoa. ISEA. Corporación Mondragón.
- Aitziber Atxaga. Gizarte Politikako Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Aitziber San Roman. Ayuntamiento de Donostia.
- Alexander Mendiburu. Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatea.
- Ana Agirre. Emakume eta Gizonen berdintasun Organoa. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Ana Urkola. Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Ander Larrea. Gizalde.
- Arantza Lekuona. Kabia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Blanca Caballero. Adinkide.
- Carlos Alfonso. Gizarte Politikako Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Divina García. Gipuzkoako Gurutze Gorria.
- Eduardo Carrasco. IZFE. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Enara Solabarria. Nagusilan.
- Eva Salaberria. Donostia Lagunkoia, Donostiako Udala.
- Fernando Fantova. Gizarte aholkularia.
- Garbiñe Mendizabal. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Inti Fraile. SII (Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua).
- Isaak Palencia. Gazteria Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Itziar Calvo. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Itziar Igartua. Kutxa Fundazioa.
- Javier Yanguas. Aubixa Fundazioa.
- Javier Barace. Gipuzkoako DYA.
- Jon Ander Azpiroz. Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza

- Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Jose Ignacio del Pozo. Hurkoa Fundazioa.
  - Jose Mari Elberdin. Helduen Hitzia.
  - Jose Luis Elosua. Nagusilan.
  - Joseba Zalakain. SISI (Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua).
  - Joserra Ecenarro. Nagusilan.
  - Joxe Agustin Arrieta. Agjijupens.
  - Karmele Peñagarikano. Euskofederpen.
  - Koldo Aulestia. AFAGI.
  - Leire Bardají. IZFE. Diputación Foral de Gipuzkoa.
  - Mabel Cenizo. Cáritas Gipuzkoa.
  - Maider Makazaga. Gipuzkoako DYA.
  - Mari Luz Peña. Adineko pertsonen Arretarako Programa, Osakidetza.
  - María Rubio. Kutxa Fundazioa.
  - Maribel Pizarro. Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoa.
  - Mayte Sancho. Adinkide.
  - Mikeldi Zeberio. Emun.
  - Miren Arbelaitz. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia.
  - Miren Elgarresta. Emakume eta Gizonen Berdintasun Organoa. Gipuzkoako Foru Aldundia.
  - Miren Gurrutxaga. Gizalde.
  - Miren Larrea. Helduak Adi!
  - Olatz Errazkin. Estrategia Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
  - Olatz Irulegi. Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitekturako Goi Eskola

Teknikoa.

- Patxi Leturia. Gizarte Politikako Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Rakel San Sebastián. Adinberri Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Santiago Larburu. Euskofederpen.
- Sara Marsillas. Matia Institutua.
- Sebas Zurutuza. Estrategia Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Unai Andueza. Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Xanti Moriones. Gizarte Politikako Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Estrategiaren diseinurako mugari garrantzitsuenetako bat izan zen lehen Oinarrien Dokumentua prestatzea, bertan ezarri baitziren Estrategian aurreikusi diren oinarriko ibilbideak eta Estrategiaren esparru kontzeptuala, xedea, ikuspegia eta printzipioak. Oinarrien Dokumentuan planteatu ziren ere bakardadeei aurre egiteko ereduak katalogo bat eta bakardade egoerarako aldaketaren teoria bat, Estrategiaren amaierako bertsioaren oinarri izan zirenak.

Oinarrien Dokumentu hau 2021eko apirilean aurkeztu zitzaion Talde Eragile Zabalduari eta, handik aurrera, partaidetzako prozesu zabal bati ekin zitzaion, alde batetik, gai honen inguruan toki eremuan

garatzen ari ziren ekimenak ezagutzeko eta, bestetik, oinarrien dokumentuan jasotako elementuen egokitasuna aztertzeko Estrategiaren behin betiko bertsioaren prestaketara begira.

Maiatza eta uztaila bitartean gauzatu zen partaidetza prozesu horretan, guztira, hogeit hamar partaidetzako saio antolatu ziren, bi txandatan banatuak<sup>2</sup>, eta bi bilera Gipuzkoako bederatz eskualdetako bakoitzean, bai eta Donostiako udalerrian ere.

Gauzatutako prozesuak helburu espezifiko hauek izan zituen:

- Lurraldeko eragile nagusien aurrean aurkeztea lurraldean bakardadeari aurre egiteko Adinberrik sortu nahi duen strategiaren oinarriak, eta estrategia haiekin batera osatuz joatea.
- Estrategiaren definizioan eta ezarpenean txertatzea sustatzaile izango diren erakundeen, eragileen eta herritarren ekarpenak.
- Estrategia garatzeko sareari laguntza ematea.
- Bakardadeen inguruko elkarrizketa publikoa abiaraztea tokiko eragile eta erakundeekin.
- Udalerrri bakoitzean dagoenen abian diren ekintzak eta proiektuak jasotzea eta prebentzio mailen araberako sailkapena osatzea.

Guztira, 350 pertsonak parte hartu dute prozesu honetan, horietako % 77 emakumeak eta % 23 gizonak. Bestalde, Gipuzkoako 88 udalerrietatik, bi txandak kontuan hartuta, udalerrien % 91k izan du ordezkari. Halaber, 98 gizarte erakunderen, kolektiboren eta administrazio publikoaren barne ez dauden eragileren partaidetza egon da. Gorago deskribatu den partaidetza prozesua amaitu egin zen enpresei eta ikerketa zentroei zuzendutako beste galdetegi baten bidalketarekin, uztailan.

**2** Lehenengo txandan parte hartu dute udaletako ordezkari politikoek eta teknikariek. Honela, udalerrri bakoitzak hausnarketarako aukera izan du, orain arte gai honen inguruan egindako lanaren inguruan, eskura dituzten baliabideen inguruan eta etorkizun hurbilerako ezarri nahi dituzten helburuen inguruan. Udal gizarte zerbitzuetako kideak izan dira, batez ere, bilera hauetan parte hartu dutenak, baina ez haiek bakarrik. Udal bakoitzak gonbidapenak egokitzen jo duen moduan bideratzeko aukera izan du. Bigarren txandan bat egin dute tokiko elkarte eta eragileek, bai eta eskualdeetako Osakidetzako ordezkariak ere, lehenengo hausnarketa aberasteko eta erakundeen eta eragileen arteko elkarrizketa ahalbidetzeko helburuarekin. Hori horrela garatu da eskualde guztietan, Donostian izan ezik. Donostiaren kasuan, egoera aztertu ondoren, ondorioztatu da "Donostia Lagunkoia" eta antzeko beste programa batzuei esker dagoeneko badela lankidetzako ibilbide sendo bat eta, kasu horretan, erabaki da bi saioak udal ordezkariekin eta tokiko eragileekin egitea..

Beraz, prozesu honetan, zenbait udaletan lan egiten duten 77 profesionalak parte hartu zuten. Horiekin batera, taula honetan jaso

dira prozesuan ordezkaritza izan duten erakundeak, kolektiboak eta bestelako eragileak:

| Erakundea                           | Azalpena                        | Eragin eremua   |
|-------------------------------------|---------------------------------|-----------------|
| 1 3Z                                | Komunitate zaintza              | Zestoa          |
| 2 Abaroa Elkartea                   | Erretiratuen elkartea           | Arrasate        |
| 3 Adinekoen Lurralde Batzordea      | Aholku batzordea                | Irun            |
| 4 Adinkide                          | Gizarte ekintza                 | Gipuzkoa        |
| 5 AECC Gipuzkoa                     | Minbiziaren aurkako elkartea    | Gipuzkoa        |
| 6 AFAGI                             | Alzheimerren aurkako elkartea   | Gipuzkoa        |
| 7 Agijupens                         | Pentsiodunak                    | Gipuzkoa        |
| 8 Agijupens-Eibar                   | Pentsiodunak                    | Eibar           |
| 9 Agijupens-Errenteria              | Pentsiodunak                    | Errenteria      |
| 10 Agijupens-Urola                  | Pentsiodunak                    | Urola eskualdea |
| 11 Aitona-amonon etxea              | Erretiratuen egoitza            | Donostia        |
| 12 AMHER-SOS arrazakeria            | Immigrantei laguntzeko elkartea | Hernani         |
| 13 Antzuolako Erretiratuen Elkartea | Erretiratuen elkartea           | Antzuola        |
| 14 Antzuolako Adinekoen Kontseilua  | Adinekoen kontseilua            | Antzuola        |
| 15 Aranealde                        | Gizarte zentroa                 | Beasain         |
| 16 Arkitektura Eskola               | Arkitektura eskola              | Donostia        |
| 17 Arrasateko Adinekoen Kontseilua  | Adinekoen kontseilua            | Arrasate        |
| 18 Basotxo                          | Erretiratuen elkartea           | Aretxabaleta    |




| Erakundea                       | Azalpena                     | Eragin eremua   |
|---------------------------------|------------------------------|-----------------|
| 19 Belasko-Soroxarta            | Auzotarren elkarte           | Irun            |
| 20 Bertxin                      | Erretiratuen elkarte         | Andoain         |
| 21 Beti Ikasten                 | Kultura elkarte              | Tolosa          |
| 22 Bizi nahi                    | Erretiratuen elkarte         | Itsasondo       |
| 23 Bizipoz kooperatiba          | Zerbitzuak                   | Gipuzkoa        |
| 24 Biztu koordinatzailea        | Erretiratuen koordinatzailea | Eibar           |
| 25 Buztintegi                   | Erretiratuen elkarte         | Legazpi         |
| 26 Caritas                      | Gizarte ekintza              | EAE             |
| 27 Donostia Lagunkoia           | Hiriko plana                 | Donostia        |
| 28 Duintasuna Elkarte           | Zahartzaroa                  | Hernani         |
| 29 DYA                          | Osasuna, laguntza            | Gipuzkoa        |
| 30 Easo Eskola Politeknikoa     | Eskola politeknikoa          | Donostia        |
| 31 El Salvador                  | Auzo etxea                   | Zumarraga       |
| 32 Elkartu                      | Gizarte ekintza              | Gipuzkoa        |
| 33 Emeki                        | Emakumeen elkarte            | Hondarribia     |
| 34 Euskofederpen                | Adineko Pertsonen Federazioa | EAE             |
| 35 Gipuzkoako Erizaintza Eskola | Erizaintza eskola            | Gipuzkoa        |
| 36 Goiz-Eguzki                  | Erretiratuen elkarte         | Hernani         |
| 37 Groseko Merkatarien Elkarte  | Merkatarien elkarte          | Donostia (Gros) |

| Erakundea                         | Azalpena                        | Eragin eremua |
|-----------------------------------|---------------------------------|---------------|
| 38 Gure Altxor                    | Erretiratuen elkarte            | Irun          |
| 39 Gure Egunsentia ile apaindegia | Ile apainketa                   | Donostia      |
| 40 Gure Txoko                     | Erretiratuen elkarte            | Zumarraga     |
| 41 Gurutze Gorria                 | Osasuna, laguntza               | Zumarraga     |
| 42 Helduen hitza                  | Erretiratuen elkarte            | Donostia      |
| 43 HELTA                          | Adinekoei zuzendutako lantegiak | Oiartzun      |
| 44 Hurkoa Fundazioa               | Mendekotasuna                   | Gipuzkoa      |
| 45 Inmaculada Zentroa             | Lanbide Heziketa                | Tolosa        |
| 46 Itxaropena                     | Erretiratuen egoitza            | Soraluze      |
| 47 Jubilatuen Biltokia            | Erretiratuen elkarte            | Elgoibar      |
| 48 Kasino Zaharra                 | Erretiratuen egoitza            | Hondarribia   |
| 49 Kattalin Elkarte               | Emakumeen elkarte               | Zumarraga     |
| 50 Kirillkupe                     | Emakumeen elkarte               | Oiartzun      |
| 51 Matía Fundazioa                | Zerbitzu soziosanitarioak       | Gipuzkoa      |
| 52 Medialab-Tabakalera            | Kultur etxea                    | Donostia      |
| 53 Mikel Deuna Fundazioa          | Egoitza – Eguneko zentroa       | Mutriku       |
| 54 Nagusilan Beasain              | Boluntarioak                    | Beasain       |
| 55 Nagusilan-Debagoiena           | Boluntarioak                    | Debagoiena    |
| 56 Nagusilan -Elgoibar            | Boluntarioak                    | Elgoibar      |

| Erakundea                            | Azalpena                      | Eragin eremua          |
|--------------------------------------|-------------------------------|------------------------|
| 57 Nagusilan-Errenteria              | Boluntarioak                  | Errenteria             |
| 58 Nagusilan-Hondarribia             | Boluntarioak                  | Hondarribia            |
| 59 Nagusilan-Irun                    | Boluntarioak                  | Irun                   |
| 60 Nagusilan Legazpi                 | Boluntarioak                  | Legazpi                |
| 61 Olazar                            | Erretiratuen elkarteak        | Eskoriatza             |
| 62 Osasun Pastoralak                 | Boluntarioak                  | Oiartzun               |
| 63 Osasun Pastoralak                 | Boluntarioak                  | Amasa-Villabona        |
| 64 ESI Bidasoa                       | Osakidetza                    | Bidasoa                |
| 65 ESI Debarrena                     | Osakidetza                    | Debarrena              |
| 66 ESI Debagoiena                    | Osakidetza                    | Debagoiena             |
| 67 ESI Donostialdea                  | Osakidetza                    | Donostialdea           |
| 68 ESI Goierri                       | Osakidetza                    | Goierri - Urola Garaia |
| 69 ESI                               | Osakidetza                    | Tolosaldea             |
| 70 Otezuri Egoitza                   | Adinekoen egoitza             | Zumaia                 |
| 71 Santa Krutz                       | Erretiratuen elkarteak        | Andoain                |
| 72 Sasoibide                         | Zahartze aktiboa              | Arrasate               |
| 73 Secot                             | Esperientziaren aholkularitza | Gipuzkoa               |
| 74 Soraluze Egoitza                  | Egoitza - Eguneko zentroa     | Soraluze               |
| 75 Itxaropenaren Telefonoa (TELESGI) | Gizarte ekintza               | Gipuzkoa               |

| Erakundea                        | Azalpena             | Eragin eremua |
|----------------------------------|----------------------|---------------|
| 76 Untzaga Erretiratuen Egoitza  | Erretiratuen egoitza | Eibar         |
| 77 Zarautz Herri Zaintzailea     | Gizarte ekintza      | Zarautz       |
| 78 Zestoako Erretiratuen Elkarte | Erretiratuen elkarte | Zestoa        |
| 79 Zorroaga Fundazioa            | Egoitza              | Donostia      |

Elementu hauek (hasierako oinarrien dokumentua, partaidetza prozesua, Talde Eragilearen ekarpenak, etab.) abiapuntu hartuta, 2021-eko irailtik abendura bitartean, Estrategiaren definizioak aurrera egin du, bai diagnostikoaren prestaketari dagokionez eta baita irizpideen, helburuen edo gomendioak definitzeari dagokionez. Hurrengo hilabeteetan, Esparru Estrategiko hau osatzen joan da eta, ondoren, 2022/2023 aldirako lehen Jarduketa Plana egin da.



## 1.3. Zertarako eta norentzat da estrategia hau

Zein da Estrategia honen helburua? Estrategiaren izen generikoa Hariak da. Hariez hitz egiten dugu, lehenik, bakardadeak ulertu nahi ditugulako, fenomeno honen inguruan hari narratibo koherente eta partekatuak eraiki nahi ditugulako. Estrategiaren prestaketa, ezarpen eta ebaluazio prozesuak kontakizun bat, diskurtso bat eta elkarrizketa publikoaren hari gidari bat sortu eta eraiki nahi ditu bakardadeen inguruan. Pertsona bakoitzari bere banakako ibilbideko bakardade egoerak eta horiei aurre egiteko bideak ezagutzen lagunduko dion narratiba bat, aldi berean beste hari batzuekin gurutzatuko dena, lurraldeko ibilbide eta sare komunitarioetan.

Beraz, hariez hitz egiten dugu, ere bai, estrategia honek pertsonen arteko loturak eta harremanak sendotu, hobetu eta areagotu nahi dituelako; ekintzarako konpromisoak eta ekintza partekatuak. Jaurti eta jaso egiten ditugun hariak dira, elkarri konektatzeko, baina aldi berean askatasuna, jarduteko ahalmena eta autodeterminazioa ematen dizkigutenak. Ez gaituzte lotzen, ez gaituzte mugatzen, bakardade egoera jakinei aurre egiteko edo horiek prebenitzeko hariak baitira, zaintza hariak, laguntza hariak eta komunitate hariak. Hautsi eta berriz ere lotu ditzakegun hariak. Gizartean gertatzen den eta sustatu nahi dugun elkarren mendekotasuna islatzen duten hariak. Hari hauek eraiki nahi dira adinekoen bizi kalitatea hobetzeko, baina azaldu den moduan, ez modu eskusiboan edo baztertzaillean. Estrategia honekin prozesu bat abiarazi da, komunitate kohesionatuak lortzeko eta pertsonen konexio aukera

gehiago eta kalitate handiagoa eskaintzen dizkien lurralde bat eraikitzeko, eta bizikidetzaren hariez osatutako auzo handi bat sortzeko ere, beraz, Gipuzkoako lurraldeko biztanleria osoari zuzendutako estrategia da.

Pentsamendu, lotura eta elkarrizketa hari hauek, galdu eta berreskuratzen ditugun hari hauek, sare bat konfiguratu nahi dute ere (Hariak sare), geroz eta nodo gehiago dituen, Gipuzkoako bakardadeei aurre egiteko jarduketara, kudeaketa eta gobernantza publiko, erkide eta lankidetzako baten alde. Kolore anitzetako hariez osatutako sare sendo eta lodia, Gipuzkoako mapa osoa estaltzen duena pertsonen bizitzari, komunitateei eta lurraldeari zentzua, konexioa eta dinamismoa emanez. Zentzu horretan, Adinberri Fundazioak, Estrategia honen erakunde sustatzaileak, uste du erronka horiek gainditzeko ezinbestekoa dela politika publikoetan parte hartzen duten beste eragile garrantzitsu batzuen ekintza, bai Gizarte Zerbitzuen aldetik eta baita bestelako ongizate sistemen aldetik ere, eta hirugarren sektoreko erakundeen, enpresen, boluntarioen eta bestelakoen aldetik ere bai. Hari hauek, aldi berean, berrikuntza teknologikoa sinbolizatu dezakete ere, adibidez, telelaguntza aurreratu bat bistaratzen dutenak, bakardade egoeretan edo egoeretatik babesteko geruza digital gisa.

Estrategiaren hartzaile nagusiak Gipuzkoako gizarte eragileak, enpresa eragileak eta erakunde eragileak dira. Izan ere, Estrategiak

arlo horietan garatzen diren eta bakardade egoerak prebenitzeko eta/edo arintzeko balio dezaketen ekimenak sustatu, lerrokatu eta artikulatu nahi ditu, batez ere, baina ez bakarrik, adineko biztanleriari zuzendutakoak. Horretarako, eta aurrerago azalduko den moduan, Estrategiak eragile guztien jarduketa zehatzak orientatu, konprometitu eta zehaztu (hitzaren esanahi bikoitzean) nahi ditu, esparru kontzeptual erkide baten barruan, Gipuzkoan bakardade egoerak prebenitu eta jorratzeko. Beraz, Estrategiaren inpaktua gauzatuko da bakardadeen fenomenoak ulertzeko balioko duen esparru erkide batean eta, batez ere, oinarri kontzeptual erkide batzuk abiapuntu hartuta, bakardade egoerak prebenitzen eta arintzen lagundu dezaketen gidalerroetan, gomendioetan, konpromisoetan eta proiektu trakziogileetan.

## 1.4. Estrategiaren egitura

Adierazitako moduan, Estrategia honek gorago azaldu den prozesuan zehar landu ziren elementuak ditu barne. Batik bat, honakoen ekarpenak jaso ditu:

- 2021eko apirilean egindako Oinarrien Dokumentua eta, bere izenak dioten moduan, Estrategiaren oinarri tekniko eta kontzeptuala dena.
- Maiatza eta uztaila bitartean garatutako partaidetza prozesua. Bertan zehaztu ziren, alde batetik, Lurraldean dagoeneko abian diren ekintzak eta, bestetik, arlo honen inguruan aurreikusitako beharrak.
- Talde Eragilea eta Talde Eragile Zabaldua osatzen duten pertsonen ekarpenak, bai eta prozesuan zehar zenbait eragileri bidalitako galdetegiei emandako erantzunak ere.
- Estrategiaren diagnostiko eta prestaketa fasean zehar agertutako bestelako elementuak, bai gure inguruneke beste herrialde batzuetan egindako esperientzien eta zenbait esku hartzeren eraginkortasunaren analisiari dagokionez, eta baita Estrategiaren oinarrizko ezaugarriei dagokienez ere, erakunde arteko artikulazioaren edo Estrategiaren gobernantza eta jarraipen sistemaren ikuspuntutik..

Sarreran aurreratu den bezala, estrategia hau bi mailatan

egituratzen da:

- **Esparru Estrategiko** bat, hasierako dokumentu honetan jasoa, strategiari atxikitako eragileen jarduna gidalerro edo gomendioen bidez bideratu nahi duena. Dokumentu honetan Estrategiaren kontzeptu-esparrua jasotzen da, aldaketaren teoriaranzko abiapuntu bat, haren oinarrizko ezaugarriak, hura lantzeko irizpide gidariak, ibilbide estrategikoak edo strategiari atxikitako erakundeek bere gain hartzen dituzten gomendioak.
- **Esparru operatibo bat edo jarduketa-planak**, printzipioz, bi urteko iraunaldia izango dutenak. Plan hauek Strategiari atxikitako erakundeek aldi bakoitzean esparru estrategikoa gauzatzeko beren gain hartuko dituzten konpromisoak, proiektu zehatzak eta bestelako jarduerak jasoko dituzte, besteak beste.

Elementu hauek oinarri hartuta, dokumentu honen egitura honakoa da:

- Atariko atalaren ondoren, bigarren kapituluan jaso dira Estrategia oinarritzen duten elementu kontzeptual nagusiak, dagoeneko aipatu den Oinarrien Dokumentuan ezarritakoa abiapuntu hartuta.
- Hirugarren kapituluan jaso da arlo honetan garatu diren nazioarteko esperientzien analisi bat: alde batetik, gure

inguruneko beste herrialde batzuetan fenomeno hau jorrazeko garatu diren Estrategien helburuak eta egiturak –edo, zenbait kasutan, erakundeak–; bestetik, bakardade egoerak prebenitu eta arintzeko esku hartze eraginkorrenak zeintzuk diren ebaluatzen eta zehazten duen literatura zientifikoaren berrikusketa bat.

- Laugarren kapituluak jaso dira bakardade egoeren diagnostiko zabala eta egoera horiei aurre egiteko Gipuzkoako politikak, hiru ardatzetatik: lehenengoak Lurraldeko bakardade egoerak kuantifikatu eta karakterizatzen ditu, erabilgarri dauden ikerketa eta estatistikak abiapuntu hartuta; bigarrenak arlo honetan Lurraldean garatu diren ekimenen oinarriko ezaugarriak jasotzen ditu, iturri nagusia izanda partaidetza prozesuan zehar jasotako informazioa; eta hirugarrenak jasotzen ditu, oraingoan ere partaidetza prozesuko informazioa oinarri hartuta, Gipuzkoan bakardadeak jorrazeko dauden erronka nagusiak, eragile interesdunen ikuspegitik.
- Bosgarren kapituluak definitu dira Estrategiaren oinarriko ezaugarriak, barne hartuta printzipio gidariak, xedea eta ikuspegia, bai eta erakunde arteko artikulazioaren irizpide nagusiak ere. Kapitulu honetan jaso dira ere, aipatu Oinarrien Dokumentuaren arabera, Estrategiaren oinarrietako bat den bakardade egoerarako aldaketaren teoria eta aurreikusitako ibilbide edo jarduketak ardatzak.
- Seigarren kapituluak jaso dira Estrategiaren gidalerroak eta gomendioak, Gipuzkoako bakardadeei aurre egiteko jarduketak epe ertainera eta luzera gidatzeko helburuarekin.
- Azkenik, zazpigarren eta zortzigarren kapituluak jaso dira Estrategiak dituen garapen zuzenerako beste elementu batzuk, besteak beste, gobernantza eta komunikazio esparrua.